

DONOSTIAN ENPRESA BERRIAK SORTZEKO 2022. URTEKO LAGUNTZA PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK. EKONOMIA SUSTATZEKO PLANA DSS2022.

ATARIKOA

Donostia Sustapena SAK, Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietateak, besteak beste **hiriaren garapen ekonomiko eta soziala** bultzatzea du xede, batez ere **kohesio eta jasangarritasun** irizpideei jarraituz eta hiriko zenbait eragilerekiko eta horien arteko **adostasun eta elkarlanetik, berrikuntzaren** aldeko apustu garbia eginez hiria eraldatzeko eredutzat.

2011z geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori inplementatzeko urteko plana izan dute, **Ekonomia Bultzatzeko Plana**. Tresna hori sendotuta dago goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker, eta, horri esker, hiriaren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan zaie, tokian-tokian nahiz globalki, azken 10 urteetan, lehiakortasuna eta posizionamendua areagotuz.

Pandemiaren eragin handiak markatutako 2021eko urte zaila emaitza onekin gaingitu ondoren, Donostiako Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko Plan berria proposatu du 2022rako.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko 2022ko plan berriak bide berri bati ekin ahal izatea proposatzen du. Bide horrek, **pertsonengan** oinarritutako ekintzen bidez, aurrera jotzearen eta etorkizunari aurre egitearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, **proiektu berritzaileen** garapena babestuz eta proiektu horiei, talentuaren garapenari eta **hiriari** berari euskarri eman diezaieketen tokiko ekosistemaren funtsezko eragileekin sarean lan eginez.

Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko, 5 ardatzen bidez:

- **Donostia kohesionatua**, lan aukera berriak garatuz eta foku berezia jarritz zailtasun handienak dituzten kolektiboetan.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasunari gora eragingo dioten enpresa proiektuak bultzatuz.
- **Donostia** zerbitzu komertzialen hiritzat, kalitatezko merkataritza-ehun berritzailearen alde eginez.
- **Donostia Zientzia eta Berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoaren eredu gisa.
- **Donostia Hiri Eraldaketako** proiektu berrien abangoardian.

5 ardatz horien bidez, Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko.

Donostia Sustapenak pertsona ekintzaileei ematen dien laguntza askotariko zerbitzu eta programetan zehazten da, ekintzailetza proiektuen garapen fase guztietan zehar agertzen dien beharretara moldatzeko ahaleginean. Zerbitzu eta programa horien guztien helburua da pertsonen behar dituzten tresnak ematea beren etorkizuneko negozioen alderdi kritikoenak aztertu ditzaten eta estrategiak diseinatu ditzaten, dagokien merkatuan ahalik eta arrakasta berme gehienekin sartzeko xedearekin.

Horretarako, Donostiako Sustapenak laguntza horiek planteatzen ditu 2022an hirian sortutako enpresa berriei, hiriaren garapen ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan laguntzen duten enpresei, laguntza emateko.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza honen xedea da norbere konturako zein besteren konturako lanpostuak sortzen dituzten Donostiako enpresa sortu berriei laguntzea **eta, bereziki, beren proiektuak Donostia Sustapenaren zerbitzu eta programen bitartez garatu dituzten enpresei laguntzea.**

Gehikuntza ekonomikoen edo zenbateko desberdinduen bidezko laguntza berezia emango zaie:

- Donostia Sustapenaren ekintzailatza zerbitzu eta/edo programen laguntza jaso duten enpresei.
- Lan mundura sartzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboek sustatutako enpresei, hots: emakumeak, 35 urtetik beherakoak edo 45 urtetik gorakoak.
- Eskaera egiteko datan lokal hutsen kopurua handiagoa duten eremuetako kale mailako lokalak okupatzen dituzten enpresei. Ondore hauetarako, hauek dira lokal hutsen kopuru handiagoa duten eremuak:
Ekialdeko barrutia (Altza, Intxaurrondo eta Miracruz-Bidebieta), Egia, Loiola, Martutene, Amara Berri eta San Bartolome ingurua, kale hauek osatzen dutena: San Bartolome, Lersundi Jenerala, Marina, Blas de Lezo, Triunfo, Manterola, Zubieta eta San Martin 35 acc zenbakitik 61era bakoitien aldean eta 46 zenbakitik 68 zenbakira bakoitien aldean..
- Eskaera egiteko datan Donostia Sustapenaren enpresa zentroetako edozeinetan kokatuak dauden enpresei.
- Eskaera egiteko datan beren produktuak DSS Market Plaza saltokiei zuzendutako plataformaren bidez saltzen dituzten enpresei.
- Enpresa proiektu berritzailea duten enpresei. Berritzailetzat joko dira Oinarri hauetako 10. artikuluan adierazitako proiektuak.

Donostia Sustapenaren beste zerbitzu eta programa batzuekin batera, laguntza deialdi honek emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzen du eta lan mundura sartzeko zailtasun handiagoa duten kolektiboen integrazioa bultzatzen du.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak HIRUREHUN MILA EURO (300.000,00 €) emango ditu laguntzetan.

Donostia Sustapena, S.A.-k zenbateko hori aldatzeko eskubidea izango du, beharrezkotzat jotzen badu.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntzaren pertsona onuraduna izango da laguntzaren esleipenaren oinarria izan zen jarduera egingo duen pertsona edo esleipena legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere Oinarri hauetan eta, bereziki, laguntza mota bakoitzean xedatutako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzen onuradunak pertsona fisiko edo juridikoak izan ahalko dira, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerrikoak, eta baita aurreko kasuetako nortasun juridikorik gabeko taldeak ere, behar bezala eratu badira ordenamendu juridikoaren arabera eta Oinarri hauetan xedatutakoa betetzen badute. Programatik kanpo geratuko dira ondare sozietateak, 2/2014 Foru Arauak, urtarilaren 17koak, Gipuzkoako lurralde historikoko sozietateen gaineko zergarenak, emandako definizioaren arabera.

Oinarri hauek ezarriko dituzte egokiak diren laguntzak eskatzeko betekizunak eta horiek betetzen direla egiaztatzeko moduak. Edonola ere, Dirulaguntzen Lege Orokorren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, ondore hauetarako aplikagarria dela berariaz adierazita.

Ez zaie laguntzarik emango egoera hauetan dauden pertsona fisiko edo juridikoei:

- Indarrean dauden xedapenek zergen eta/edo Gizarte Segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak egunean ez izatea.
- Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eta/edo laguntzak jasotzeko eskubidea galarazita izatea, edo horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekuren bat izatea, barne hartuta sexuagatik egindako diskriminazioa dela eta zehapena jaso duten pertsonak, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoak, seigarren amaierako xedapenean adierazitakoaren arabera.
- Donostiako Udalarekin edo Donostia Sustapenarekin zorrak izatea.
- Aldez aurretik emandako laguntzak itzultzeke izatea, erabat edo partzialki, itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen ez den bitartean.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO PERTSONA ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Onuradunek deialdian parte hartu ahal izateko bete beharko dituzten baldintzak hauek dira:

- a. Laguntza jasotzen duten jardueraren eta lan zentroaren egoitza fiskala Donostiako udalerrian egotea. Pertsona fisikoen edo sozietate zibilen kasuan, egoitza sozial eta fiskal desberdinak onartuko dira, betiere, Donostia Sustapenaren iritziz, jarduera Donostiako lan zentro batean garatzen delako froga nahikoak badaude.

- b. Enpresaren sorrera eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergako hasierako alta edo, egokia denean (abeltzaintza, nekazaritza, baso eta arrantza jarduerak, etab.), zentsu aitortpenaren alta data, 2022ko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren artekoa izatea, biak barne.
- c. Laguntza eskatu duen enpresa sortu eta aurreko sei hilabeteetan, jarduera berean edo antzekoan, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan matrikulatuta egon ez izana.
- d. Aurreko enpresa baten forma juridikoaren aldaketa baten ondorioz sortutako enpresa berriak ez izatea. Ondorioz, ez dira laguntzen onuradunak izango jarduera berria abiarazi eta aurreko sei hilabeteetan zehar jarduera berean edo antzeko batean titular gisa – banaka zein sozietate batean (partaidetza edozein izanda ere)– jardun duten sustatzaileak dituzten enpresa berriak.
- e. 2022ko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren artean gutxienez ere alta berri bat sortzea Gizarte Segurantzari.

Alta hori izan ahalko da bazkideen alta Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB), dagokien mutualitatean kolektibo profesional jakinen kasuan edo Araubide Orokorrean, edo enpresa berriaren langileen alta Araubide Orokorrean, betiere kontratu mugagabeak badira eta kontratazioa enpresaren lehenengo urte osoan zehar mantentzen bada. Ez dira onartuko aldizkako kontratu finko mugagabeak.

Langile autonomoen altak alta berritzaile joko dira laguntza eskatu duen ekonomia jarduerarekin lotura badute.

- f. Laguntza eskatu duen enpresa eratu aurretik bazkideren batek Donostia Sustapenak aldi berean eskatzen dituen prestakuntza saiok burutu izana edo Donostia Sustapenaren ekintzazailtza programetan proposatutako ibilbidea burutu izana.

Hala ere, Donostia Sustapenak prestakuntza hau burutu izana salbuetsi ahalko du garatuko den negozio ereduaren inguruko ezaguera nahikoa egiaztatu bada honako alderdi hauek ziurtatzen dituzten dokumentu edo ziurtagirien bitartez:

- Ikasketak/prestakuntza
- Esperientzia
- Enpresa plana izatea. Ez dira gutxienezko eduki hauek barne ez dituzten enpresa planak: talde sustatzailearen identifikazioa, negozio idearen azalpena, merkatuaren azterketa, AMIA, balio proposamena, merkataritza estrategia, gastuak, inbertsioak, errentagarritasun atalasea eta finantzaketa.

- g. Pertsona juridikoen kasuan, jarraian adierazitako betekizun guztiak betetzea:

1. Aktiboa 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Itunean definitzen den moduan, 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
2. Langileen multzoak, batez beste, 50 pertsona kontratatu baino gehiago ez izatea. Langileen batezbestekoa kalkulatzeko kontuan hartuko da langileen kopurua urteko, lanaldi osoarekin. Lanaldi partziala duten langileen kasuan, hauen zenbaketa lan egiten duten orduetako proportzionala izango da.
3. Zuzenki edo zeharka, % 25ean edo hortik gorako maila batean, 1. eta 2. puntuetan aurreikusitako betekizunen bat betetzen ez duten enpresen jabetzakoak ez izatea.

Erakundea sozietate talde baten barne dagoenean, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreko 1. eta 2. puntuetan adierazitako magnitudeak talde horren baitan dauden enpresa guztien multzoari aplikatzekoak izango dira.

Gutizko aktiboaren eta eragiketen bolumenaren zenbaketaren helburuetarako, kontuan hartuko dira dagozkion baztertzekak, Merkataritzako Kodearen 46. artikuluan eta haren garapen arauetan aurreikusitakoaren arabera.

Ezingo dira pertsona onuradunak izan:

- Irabazi asmorik gabeko fundazioak, entitateak eta elkarteak.
- Ezingo dira onuradunak izan % 25ean edo hortik gorako maila batean sektore publikoko erakundeak (sektore publikoko gisa ulertuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duenak, 3. artikuluan barne hartutako erakundeak), irabazi asmorik gabeko erakundeak, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen mendekoak edo jabetzakoak diren erakundeak.

5. ARTIKULUA. LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Berriki sortutako enpresei zuzendutako laguntzaren zenbatekoa izango da:

Oinarrizko zenbatekoa:

Oinarrizko laguntza izango da

- **MILA BOSTEHUN (1.500,00 €) EURORA** artekoa Donostia Sustapenaren ekintzailatza zerbitzuen eta/edo programen ibilbideak osatu dituzten enpresentzat.

- **ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR (750,00 €) EURORA** artekoa gainerako enpresentzat.

Donostia Sustapena izango da sortutako enpresak edo bere sustatzaileek zerbitzu eta programa hauetan parte hartu duela/dutela egiaztatuko duena.

Gehikuntzak:

Laguntza hauen zenbatekoa oinarrizko zenbatekoarekiko areagotu ahalko da jarraian adierazitako baldintzetako bat betetzen bada:

1. Lan merkatura sartzeko zailtasun handiagoa duten kolektiboetako kide izatea: **BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (250,00 €) EURORA** arteko gehikuntza bazkideren bat kolektibo hauetako bateko kide bada:

- Emakume ekintzaileak.
- 45 urtetik gorako pertsonak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.

Kolektibo hauetako kide izatea egiaztatu ahal izateko, erreferentzia moduan hartuko da enpresaren alta data. Aurreko puntuetan adierazitako kolektibo baten baino gehiagoren kide izatea ez da metagarria izango gehikuntzen ondoreetarako eta, beraz, egoera horietako bat bakarra egiaztatu beharko da.

2. Kale mailako eta Donostia Sustapenaren enpresa zentroetako lokal komertzialak alokatzea: **MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (1.250,00 €) EURORA** arteko gehikuntza jarraian adierazitako eremuetan kokatutako enpresentzat:

- Lokal hutsen kopuru handiagoa duten auzoak: Ekialdeko barrutia (Altza, Intxaurren eta Miracruz-Bidebieta), Egia, Loiola, Martutene, Amara Berri eta San Bartolome ingurua, kale hauek osatzen dutena: San Bartolome, Lersundi Jenerala, Marina, Blas de Lezo, Triunfo, Manterola, Zubieta eta San Martin 35. azkenetik 61.era bakoitien aldean eta 46. zenbakitik 68. zenbakira bakoitien aldean.
- Donostia Sustapenaren enpresa zentroak: Cemei, Pia, Energetic, Zentek, Democenter, Villa Yvette eta Belartza.

3. DSS Market Plaza bidezko salmenta

BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (250,00 €) EURORA arteko gehikuntza DSS Market Plaza plataformaren bidezko salmenta digitalaren aldeko apustua egin duten eta, eskaera egiteko momentuan, gutxienez ere plataforma horretan 10 produktu salgai dituzten enpresentzat.

Donostia Sustapenak egiaztatuko du betekizun hau.

4. Proiektu berritzaileak:

ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR (750,00 €) EURORA arteko gehikuntza Oinarri hauetako 10. artikuluan ezarritako irizpideen arabera berritzailetzat jotzen diren proiektuak dituzten enpresentzat.

Aipatu gehikuntzak metagarriak dira.

Laguntzaren zenbatekoa **LAU MILA (4.000,00 €) EUROKOA** izan ahalko da gehienez.

Enpresa bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahalko du.

Donostia Sustapenak eskubidea izango du aurreko betekizunetako edozein egiaztatzeko edozein dokumentazio edo informazio gehigarri eskatzeko.

6. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK

Diruz laguntzeko modukoak izango dira enpresaren lehenengo hilabeteetatik eratorritako eta enpresa abiarazi eta martxan jartzeko behar diren gastuak, betiere gastu horiek sortu badira Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) alta, edo zentsu aitortpenaren alta, egokia denean, eta bi hilabete lehenagotik eta altaren ondorengo 12 hilabetera bitartean. Gastu hauek izan ahalko dira, besteak beste:

- Ekonomia jarduerari lotutako inbertsioak. Ibilgetu materiala finantza errentamendu (leasing) bidez erosiz gero, diruz laguntzeko modukoak izango dira kuotak, interesik gabe.
- Ibilgailuen kasuan, bakarrik ekonomia jardueraren garapenerako eskusiban erabiltzen diren horiek bakarrik, betiere inguruabar hori behar bezala egiaztatu bada.
- Ekonomia jarduerarako ondasun higiezinak egokitzeko eta/edo zaharberritzeko obrak.
- Enpresa eratzeako gastuak, esaterako: irekiera lizentzia, jarduera lizentziak, notariotza eta merkataritza erregistroko gastuak edo negozioa abiarazteko derrigorrezkoak diren bestelako tasak.
- Patenteak, baliagarritasun modeloak, markak eta diseinu industrialak izapidetu eta eskuratzeko gastuak.
- Jarduerari eta bazkideen gaitasunak hobetzeko trebakuntzari lotutako prestakuntza gastuak, kanpo utzita tituluak lortzeko gastuak, bidaia gastuak, desplazamenduak, ostatuak edo beste edozein dieta (gosari, bazkari edo afari gastuak).
- Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian edo araubide orokorrean kotizatzeako kuotak.
- Soldatak (nominak).
- Proiektuari lotutako komunikazio gastuak. Hauen artean sartu ahalko dira publizitate kanpainak, webguneen diseinua, gizarte sareetako diseinua, etab.
- Uneko enpresen erosketa enpresa horien jarduerarekin jarraitu ahal izateko.

- Ekonomia jarduerarako ondasun higiezin errentamendu gastuak (alokairuak). Ez dira onartuko enpresako bazkideen edo hauen 2. gradura arteko senideen jabetzakoak diren higiezin alokairu kontratuak.

Egiaztapen helburuetarako ez dira kontuan hartuko 100 eurotik beherako (zergak kanpo) gastuen fakturak eta ordainagiriak. Autonomo kuotak izan ezik, zenbatekoa edozein izanda ere diruz laguntzeko modukoak izango baitira.

Kreditu edo zordunketa txartelarekin, banku transferentzia bidez edo helbideratutako ordainagiri bidez egindako ordainketak onartuko dira bakarrik. Ez dira onartuko eskudirutan egindako ordainketak edo Bizum-en moduko sistemekin edo antzeko tresna/aplikazioekin egindakoak.

Egindako ordainketen egiaztagiriek eragiketaren xehetasun guztiak adierazi beharko dituzte (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.) eta ez dira inolaz ere onartuko banku mugimenduen zerrendak.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- Enpresak merkaturatuko duen amaierako objektua lortzeko behar diren merkataritza produktuen eta/edo lehengaien erosketa eta laginak prestatu edo ekoizteko produktuen erosketa.
- Material suntsikorren eta bulegoko materialen erosketa.
- Hornidurak (ura, argindarra, telefonoa...).
- Bidaia eta ostatu gastuak edo mota guztietako dietak (gosariak, bazkariak edo afariak).
- Zerga, lan, kontabilitate, administrazio edo legeen arloko aholkularitza, eguneroko kontabilitate liburuei eta zerga betebeharrei buruzkoa.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- 100 eurotik beherako fakturak, zergak kanpo. Autonomo kuotak izan ezik, zenbatekoa edozein izanda ere diruz laguntzeko modukoak izango baitira.

Eta alokairuen kasuan bereziki, ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- Obligazio bat betetzea bermatzen duten fidantzak, gordailuak edo antzekoak.
- Abalen edo antzekoen gastuak.
- Hirugarrenen aholkularitza eta bitartekaritza (higiezin agentziak...).

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak, betiere beste dirulaguntza horien araudian ezarritakoa kaltetu gabe eta baldintza hauek betetzen badira:

- Oinarri hauetan ezarritako laguntzek jarraian adierazitako araudian ezarritako *minimis* arauak errespetatuko dituzte: 1407/2013 (EB) Batzordearen Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, 2013ko abenduaren 24ko EBAOan argitaratua, Europar Batasunaren *minimis* laguntzen Funtzionamendu Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa.
- Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoa, bere horretan edo bestelako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru sarrerekin edo baliabideekin batera, ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

EJZ alta (edo zentsu aitortpena, kasuaren arabera) **oinarriak argitaratu aurretik egin duten enpresen kasuan**, epea bi hilabetekoa izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Alta data Gipuzkoako Aldizkari ofizialetako **argitalpen dataren bera edo horren ondorengoa bada**, epea bi hilabetekoa izango da, EJZren alta datatik (edo zentsu aitortpenaren datatik, kasuaren arabera) hasita eta gehienez ere 2022ko abenduaren 31ra arte.

Eskaerak telematikoki aurkeztu ahalko dira Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Bitarteko hauek erabili ezin dituzten hautagaiak harremanetan jarri beharko dira Donostia Sustapenarekin eta hark beste izapidetze moduren bat ezartzeko aukera izango du.

Eranskinak erabat bete beharko dira eta behar bezala sinatu beharko dira orrialde guztietan.

Dagokion eskaera inprimakiari Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio administratibo guztia erantsiko zaio.

Edozein informazio, zalantza edo kontsulta gehigarriko, Donostia Sustapenak pertsona guztien eskura jarri du 943482800 telefonoa, 9:00etatik 18:00etara astelehenetik ostegunera eta 9:00etatik 14:00etara ostiraletan eta jaiegun bezperetan, bai eta fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa ere, kontsultak jarraian adierazitako gaiarekin bidaltzeko: 2002 Sorrera Laguntza.

Laguntza ekonomiko hau eskatzeko interesa duten enpresek edo erakundeek dokumentazio hau bidali beharko dute:

Dokumentazioa:

	ERANSKINAK
1	Eskaera eranskina (<i>Sinadura elektronikoa behar du</i>)
2	Enpresa eskatzailearen bankuko datuen eranskina, banku erakundeak sinatua, edo bankuko dokumentu baliokidea (titulartasun ziurtagiria).
3	Memoria finantzarioaren eranskina, faktura eta ordainketen frogagiriekin batera.
4	Proiektu berritzailearen memoriaren eranskina (gehikuntza hori eskatzen bada bakarrik).

	ENPRESAREN DOKUMENTUAK
5	Enpresa eskatzailearen IFK.
6	Pertsona juridikoa bada, eraketa eskritura edo dokumentuak, estatutuak edo fundazio akta, jarduera arautzen duten arauak azaltzen dituen eta, pertsona juridiko motaren arabera, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta dagoena.
7	Nortasun juridiko propiorik ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua gehituko da.
8	Laguntza eskatzen duen enpresaren Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen egiaztagiriak.
9	Fakturen kopiak eta fakturen ordainketaren egiaztagiriak, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. (Dokumentu hauek eskaera egiteko momentuan edo egiaztapenaren momentuan aurkeztu ahalko dira).
10	Kontratu mugagabearekin kontratatutako pertsonen kontratuaren kopia, enplegua sortzeko betekizuna enpresarekin lotutako langileen kontratazioarekin betetzen den kasuetan.

	BAZKIDEEN DOKUMENTUAK
11	Eskatzailearen eta laguntza jaso nahi duten gainerako bazkideen NANA.
12	Laguntza jaso nahi duen eta enplegua sortzeko betekizuna betetzen duen sustatzailearen lan bizitza edo dagokion Mutualitateko altaren kopia, elkargokideak diren profesionalen kasuan.
13	Donostia Sustapenak eskainitako prestakuntza egin ez izanaren salbuespena egiaztatu behar bada: ✓ Ikasketen/prestakuntzaren bidez, titulu akademikoak aurkeztu beharko dira. ✓ Esperientziaren bidez, lan bizitza aurkeztu beharko da, esperientzia zein enpresetan lortu zen eta zein esperientzia lortu zen adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen batekin. ✓ Enpresa plana izatearen bidez, enpresa plana aurkeztu beharko da, Oinarri hauen 4. artikuluan adierazitako gutxieneko edukiarekin.

	GEHIKUNTZAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAK
--	--------------------------------------

14	<u>Alokairuarekin</u> lotutako gehikuntzetarako: errentamendu kontratua, bi alderdiek behar bezala sinatua. (Donostia Sustapenaren enpresa zentroetan dauden enpresak izan ezik).
----	---

Pertsona onuraduna izango da egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren erantzule bakarra, bai eta aurkeztutako gainerako dokumentazioarena ere.

Aurreko 1-6 puntuetan adierazitako dokumentazioari dagokionez, enpresa edo erakunde eskatzaileak dagoeneko dokumenturen bat aurkeztu badu 2018 urteaz geroztiko Donostia Sustapenaren laguntza programaren batean parte hartu izanagatik, ez du dokumentazio hori berriro aurkeztu beharko, betiere dokumentuek indarrean jarraitzen badute eta/edo ez badute inolako aldaketarik izan.

Donostia Sustapenak zuzenki eskuratuko du egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bidez, zerga betebeharrak dagokienez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gipuzkoako Foru Ogasunak ematen duen ekonomia jardueren gaineko zergaren historikoari dagokionez (altak, bajak, aldaketak, jardueren epigrafeak).

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko momentuan Udal Zerga Bilketaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean ez dituzten erakundeek betebeharrak horiek bete izana egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berariaz aurkaratu ahalko du Donostia Sustapenak datu hauen kontsulta egitea. Horretarako, aurkaratzearen arrazoiak adierazi beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta egokiak diren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu:

- Laguntza eskatzen duen enpresaren zerga betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.
- Ekonomia jardueren dokumentu historiko eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eskatzen duen enpresari buruz emandakoa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria non egiaztatzen den laguntzaren eskatzaileak ez duela inolako zorrik Donostiako Udalarekin.
- Ekonomia jardueren dokumentu historiko eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eskatzen duen laguntza eskatzaile bakoitzaren buruz emandakoa.

9. ARTIKULUA. ESKAERAREN AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak, dokumentazio guztia berrikusi ondoren, egiaztatzen badu osatugabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko hamar egun baliodunen epe barruan, eta ohartaraziko dio ere akatsa zuzentzen ezean eskaera kanpo geldituko dela, izapide gehigarririk gabe, horren inguruko ebazpena emanda. Administrazio dokumentuen eta laguntza mota bakoitzaren dokumentazio espezifikokoaren zuzenketa baimenduko da. Donostia Sustapenak argibideak eskatu ahalko ditu

pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentuei, informazioari eta/edo proiektuaren memoriari buruz.

Zuzenketarako eskatzen den dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen bidez egingo da eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Eskaerak erregistro ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, laguntza bakoitzarentzat esleitutako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako laguntzaren inguruko ebazpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaeraren erregistro datatik hasita, epe horren barruan zenbatu gabe dokumentazioa zuzentzeko garaia. Laguntza ematearen ebazpena ezarritako epe barruan ematen ez bada, laguntza eman ez dela ulertuko da.

Eskatzaileak eskaeran adierazi beharko ditu jaso nahi dituen gehikuntzak. Donostia Sustapena izango da eskatzaileak eskatutako gehikuntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen ala ez erabakiko duena eta ez du betebeharririk izango eskaeraren eranskinean adierazi ez diren gehikuntzak kontuan hartzeko.

Emakume izateagatik, bereziki zaurgarriak diren kolektiboetako kide izateagatik eta/edo lokal huts gehiago dituzten eremuetan alokatzeagatik eskatutako gehikuntzen kasuan, Oinarri hauen 8. artikuluan adierazitako dokumentazioa aztertuko da.

Donostia Sustapenaren zerbitzu eta programekiko loturaren kasuan eta DSS Market Plaza plataformako parte hartzeen kasuan, egiaztapena Donostia Sustapenaren esku geldituko da.

Proiektu berritzaileei zuzendutako gehikuntzen kasuan, bi bide hauetako batetik baliozkotuko dira:

1. Eskatzaileak Donostia Sustapenak kudeatzen dituen potentzial handiko ekintzailetzari zuzendutako sustapen programaren batean parte hartu izana 2020ko 2021eko edo 2022ko deialdietan: Ekin+, Inkubagailua edo Explorer, edo zentzu horretan gara litezkeen beste batzuk.
2. "Proiektu berritzailearen memoria" eranskinean ageri den gidoiari jarraitzen dion proiektuaren memoriaren ebaluazio bidez. Kasu honetan, proiektua berritzailetzat jotzeko, gutxienez 25 puntu lortu beharko ditu jarraian adierazitako irizpideen arabera:

ENPRESA BERRITZAILEAREN BALIOESPENA	50
1. ENPRESA BERRIKUNTZAREN ETA BIDERAGARRITASUNAREN MAILA	30
2. I+G+B eta TEKNOLOGIAREKIKO LOTURA MAILA	20

Eskaera ebazteko, Donostia Sustapenak pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskatu gabe aurkeztu diren gainerako dokumentuak ez dira halaberharrez berrikusiko laguntza ebaztean.

Laguntza ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen bidez egingo da eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

Ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Deialdi honen inguruko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eskaeran adierazitako helbide elektronikora.

Emandako ebazpenarekin ados ez egotekotan, alegazioak aurkeztu ahalko dira hilabete bateko epe barruan, ebazpenaren datatik hasita. Horretarako, eskatzaileak Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko dira alegazioak izapidetzeko prozeduren berri jasotzeko. Donostia Sustapenak erabakitakoa errespetatu beharko da eta bi alderdiak, egokiak denean, Donostiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Diruz laguntzeko moduko gastutzat onartuko dira, oro har, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin lotura dutenak eta Oinarri hauetan ezarritako epe barruan eta baldintzen arabera egin direnak. Diruz laguntzeko moduko gastuen eskuratze kostua ezingo da inolaz ere izan merkatuko baliotik gorakoa.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikagarria izango zaie, berariazko bidaltze bidez, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31. artikulua.

Enpresa berriak sortzeko laguntzak bi zatitan ordainduko dira, dagozkien gastuak justifikatu ondoren.

Lehenengo ordainketa laguntza ebazteko datan egingo da eta barne izango ditu eskaeraren momentura arte justifikatutako gastuak, emandako laguntzaren **% 80ra arte gehienez**.

Bigarren ordainketa egingo da enpresaren alta data (Ekonomia Jardueren gaineko Zergan edo, egokia denean, zentsu aitortpenaren data) ondoren **12 hilabete igaro** direnean eta amaierako justifikazioa aurkeztu ondoren. Ordainketa honek barne hartuko du justifikatutako gainerako zenbatekoa, emandako laguntzaren gehieneko zenbatekora arte. Ordainketa hau egin ahal izateko enpresak bere jarduerekin jarraitu beharko du lehenengo 12 hilabeteetan zehar.

Amaierako justifikazioa aurkezteko gehieneko epea hilabete batekoa izango da, enpresaren alta datatik 12 hilabete igaro direnetik zenbatzen hasita (Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren alta data edo zentsu aitortpenaren alta data).

Epe hauek betetzen ez badira, ez da laguntzaren bigarren ordainketa egingo.

Onuradunak justifikazioa egiteko eta laguntza jasotzeko aurkeztu beharko duen dokumentazioa hau da:

FROGAGIRIAK	
1	Eranskina: "Justifikazioa"; barne du ordura arte eta helburu bererako erakunde pribatu zein publikoei eskatutako edo hauengandik jasotako gainerako laguntzen inguruko erantzukizunpeko adierazpena.
2	Eranskina: "Memoria finantzarioa", gastu eta ordainketen frogagiriekin batera doana.
3	Diruz lagunduko diren gastuen egiaztagiria eta egindako ordainketen frogagiriak, betiere eskaera egiteko momentuan aurkeztu ez baziren.
4	Laguntza eskatzen duen enpresaren Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.
5	Laguntza jaso nahi duten sustatzaileetako bakoitzaren lan bizi-tza, enpresaren alta datatik (Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren alta data edo zentsu aitortpenaren alta data) 12 hilabete igaro ondoren emandakoa.
6	Kontratazioaren ondoriozko enplegu sorreraren kasuan: Enpresaren lehenengo urtean zehar enplegua mantendu dela egiaztatzen duen enpresaren lan bizi-tza.

Donostia Sustapenak zuzenki eskuratuko du egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bidez, zerga betebeharrei dagokienez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gipuzkoako Foru Ogasunak ematen duen ekonomia jardueren gaineko zergaren historikoari dagokionez (altak, bajak, aldaketak, jardueren epigrafeak).

Eskatzaileak berariaz aurkaratu ahalko du Donostia Sustapenak datu hauen kontsulta egitea. Horretarako, aurkartzearren arrazoiak adierazi beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta egokiak diren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu:

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko momentuan Udal Zerga Bilketaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean ez dituzten erakundeek betebeharrak horiek bete izana egiaztatu beharko dute.

Enpresa eskatzaileak eta/edo sustatzaileetako batek edo batzuek berariaz aurkaratu badute Donostia Sustapenak ziurtagiri telematikoak eskatu ahal izatea edo zergak Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo ordaintzen badituzte, aurkeztu beharko dute ere:

- Laguntza eskatzen duen enpresaren zerga betebeharrak egunean izatearen egiaztagiriak.
- Ekonomia jardueren dokumentu historiko eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eskatzen duen enpresari buruz emandakoa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria non egiaztatzen den laguntzaren eskatzaileak ez duela inolako zorrik Donostiako Udalarekin.

Dokumentazioa bitarteko telematikoaz aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak erabat bete beharko dira.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek DLOaren 14. artikuluan jasotako betebeharrak izango dituzte eta, ondore hauetarako, artikulua hori aplikagarritzat jotzen da berariaz, betebeharrak hauei dagokienez (besteak beste eta mugarik gabe):

- a) Laguntza erabiltzea diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko.
- b) Diruz laguntzeko moduko gastuen frogagiriak aurkeztea, ezarritako moduan eta epe barruan.
- c) Jasotako laguntzen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketetan eskatu ahal diren bitartean eta, edozein kasutan ere, araudi aplikagarrian ezarritako epean zehar.
- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztien kontabilitatea eramatea.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala mantentzea, betebeharrak hori duenean.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.
- g) Laguntzak jasotzeko kontuan hartu diren inguruabar subjektibo zein objektibo guztien aldaketa guztiak Donostia Sustapenari jakinaraztea.
- h) Donostia Sustapenak, bere eginkizunen esparruan, eskatzen duen emandako laguntzei buruzko informazio guztia ematea.
- i) Donostia Sustapenari jakinaraztea xede bererako jasotzen diren gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo bestelako baliabideak.
- j) Donostia Sustapenak jasotako laguntzaren inguruan antola ditzakeen jardunaldietan (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.) parte hartzea.
- k) Donostia Sustapenari jakinaraztea laguntzaren eskaeran adierazitako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabar.
- l) Egokia denean, Donostia Sustapenari laguntzea finantza kontrolerako jarduketetan eta egin ditzakeen egiaztapenetan, haren eskura jarrita eskatzen dion informazio eta dokumentazio guztia.

- m) Laguntza jaso duen jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak edukitzea.
- n) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- o) Laguntza emateko kontuan hartu diren enpresa eta bazkideak alta egoeran mantentzea gutxienez ere enpresaren alta data (Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren alta data edo zentsu aitortpenaren alta data) eta hurrengo 12 hilabeteetan zehar, emandako laguntzaren bigarren ordainketa jaso ahal izateko.
- p) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanda) komunikazio euskarrietan (webgunea, gizarte sareak, posta elektronikoak, megafonia, etab.), sustapen eta hedapen materialen edizioan eta antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, etab.
Erakunde eskatzaileek Donostiako Udaleko euskara zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahalko dute testuak itzultzeko eta testuak zuzentzeko (itzulpenek gehienez ere 1.000 karaktere izango dituzte hilean eta, zuzenketek, 9.000 karaktere), betiere zerbitzuaren betekizunak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>).

13. ARTIKULUA. LAGUNTZAK ITZULTZEA

Onuradunak jasotako laguntza itzuli beharko du, gehi diruaren legezko interesa –ordainketa egin zen momentutik hasita–, kasu hauetako edozeinetan:

-Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez betetze larri eta errepikatua. Ez betetze larri eta/edo errepikatutzat joko da Oinarri hauetako betebeharrak bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datuak, ziurtagiriak, txostenak eta/edo dokumentazioa faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo haren zati bat aurreikusitakoa ez den beste xede baterako erabiltzea.

-Laguntzaren erabilera Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea, edo behar adina justifikaziorik ez ematea.

-Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskapen jarduketei aurre egitea, aitzakia jartzea edo jarduketa horiek oztopatzea edo ukatzea, eta kontabilitate, erregistro edo dokumentuen kontserbazio betebeharrak ez betetzea baldin eta hortik eratortzen bada jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatzeko jardueren errealitatea eta erregularitasuna edo edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk –nazionalak, Europar Batasunekoak zein nazioartekoak– xede bererako emandako gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak egiaztatzeke ezintasuna.

-Jarduerak gehiegizko finantzaketa izango balu, xahutu ez den zenbatekoa edo soberako finantzaketa.

Donostia Sustapenak Oinarri hauetan ezarritako egoeraren bat gertatu dela egiaztatzen badu, ekarpena itzuli beharko da, jarraian adierazitako baldintzetan.

Itzulera laurogeita hamar (90) egun naturaleko epe barruan egingo da, Donostia Sustapenak burofax bidez artikulua honetan aurreikusitako itzulera egoera baten egiaztapena onuradunari bidaltzen dion egunetik zenbatzen hasita.

Gorago adierazitako itzulera egoeraren bat gertatzekotan, onuradunak ordaintzeke dauden zenbatekoak kobratzeko eskubidea galduko du ere, halakorik balego.

Nolanahi ere, laguntza hauei onura ateratzeko eskatzen diren betekizunak momentu oro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzen itzulera eskatu ahalko du, aurreko paragrafoetan adierazitako moduan. Halaber, ez betetze larrienen kasuan, hala nola datuak faltsutzea edo jasotako laguntza osoa edo horren zati bat beste xede baterako erabiltzea, Donostia Sustapena S.A. sozietateak emandako laguntza ezerezteko ahalmena izango du eta, egokia denean, jasotako zenbateko guztien itzulera eskatu ahalko du, jasotako zenbatekoaren halako bost ordaintzea eskatzeaz gain.

14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuen babeserako indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, Oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie dagokien eskaeraren bitartez ematen dituzten datu pertsonalak, eta baita laguntzak izapidetu bitartean eta/edo laguntzak eman ondorengo kudeaketa bitartean aurkeztutako beste edozein dokumentu ere, fitxategi batean sartuko direla Donostiako Udalaren aldetiko tratamendurako, Donostiako Udala izanda tratamenduaren arduraduna eta Donostia Sustapena izanda tratamenduaren eragilea eta kudeaketa egingo duena. Tratamenduaren xedea izango da aipatu laguntzen eskaerak kudeatzea eta izapidetzea.

Tratamenduaren legitimotasun oinarria izango da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (RGPD), 6.1.e) artikuluan xedatutakoari dagokionez: tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo dagokien eskaera inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalen inguruan eskatutako informazioa ematea nahitaezkoa izango da eta, informazio hori emango ez balitz edo datuak zuzenak izango ez balira, eskaera ezingo da kudeatu.

Datuak gordeko dira jaso ziren xedea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar eta xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizun posibleak argitzeko beharrezkoa den denboran zehar.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak laga ahalko zaizkie laguntzen finantzaketan laguntzen duten eta/edo Donostia Sustapenarekin laguntzen

kudeaketan lankidetzan aritzen diren erakunde nazionalai edo nazioz gaindiko erakundeei, kasuaren arabera, betiere lagapena beharrezkoa bada eta laguntzaren esleipena kudeatzeko helburuetarako bakarrik.

Halaber, jakinarazten da laguntzak emateak onuradunaren identifikazio datuak eta emandako laguntzaren zenbatekoa jakinaraztea edo lagatzea dakarrela, Donostia Sustapenaren webguneko argitalpen bidez eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko argitalpen bidez, azken kasu honetan laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean edo, zenbatekoa edozein izanda ere, argitalpen hori derrigorrezkoa denean bakarrik.

Interesdunek atzipen, zuzenketa eta ezabaketa eskubideak baliatu ahalko dituzte, indarrean dagoen datuen babeserako araudian aurreikusitako gainerako eskubideekin batera, hala dagokienean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren aurrean, helbide honetan: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia / San Sebastián.

Norberari dagozkion eskubideak baliatzean behar bezalako arreta ez jasotzekotan, erreklamazio bat aurkeztu ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, lehen urrats moduan, erreklamazioa aurkeztu ahalko zaio Donostiako Datuen Babeserako Ordezkarari: dbo@donostia.eus.

Ondore hauetarako, jasota uzten da kasuko eskaera aurkeztearekin batera eskatzaileak berariazko baimena emango duela aurreko paragrafoetan adierazitako datuen komunikazio edo lagapenak egiteko.

15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onarpena.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira eta argitalpen horren hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Eskaera aurkezteak Oinarri hauen erabateko onarpena dakar.

Erantzukizun salbuespena.

Pertsona onuraduna izango da laguntzaren objektua den jardueraren aurretik edo ondoren gauzatutako jarduketetatik edo jarduera horretatik eratorritako kalte pertsonalen eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapena horien ondoriozko orotariko erantzukizunetik salbuetsita egongo da.

16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Emandako laguntzak Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arautuko dira eta, modu osagarrian, DLOan eta DLOaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak (aurrerantzean, DLOE) onartutako garapen erregelamenduan xedatutako arauen arabera, baina bakarrik DLO horretan ezarritako kudeaketa printzipioei eta 20. artikuluan aipatutako informazio printzipioei dagokienez, hori guztia aplikazio hau ezartzen duen DLOaren 3.2 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera.

Gainerako kasuetan, aipatu DLO eta DLOE testuak aplikagarriak izango dira bakarrik Oinarri hauetan legezko testu horiek berariaz aipatzen diren alderdietarako.

Donostian, 2022ko ekainaren 2an.

Marisol Garmendia Beloqui.

Ekologia, Osasun Publiko, Garapen Ekonomiko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria.